

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2015-2020 aldirako Nafarroako Lan Osasuneko III. Planak arlo horretako prebentzioa nahiz hezkuntza sendotuko ditu eta lan-ezbehar handiko sektoreek kontrol handiagoa jasango dute

Apirilaren 28ra arte dago zabalik herritarrek dokumentu estrategiko horri egiteko ekarpenak

Miércoles, 15 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran izan du [2015-2020 aldirako Nafarroako Lan Osasuneko III. Plana](#) izeneko proposamenaren berri. Proposamen hori Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua erakunde autonomoak egin du, eta apirilaren 28ra arte, egun hori barne, [herritarrek egin nahi dituzten ekarpen](#)etara zabalik izango da.



Fabrika.

Dokumentu estrategikoaren helburua alor horretako administrazio eskudunen jarduerak prebentzio nahiz aholkularitzaren eremuetan sendotzea da eta, berrikuntza nagusi modura, hezkuntzan, Foru Komunitatean curriculum-gaia izan dadin proposatzea hezkuntzako maila guztietarako; eta agintariei behartzen die lan-ezbehar handiko indizeak dituzten sektoreei kontrol handiagoa egin diezaieten.

Lan Osasuneko III. Plana jarduteko [sei ildo estrategikotan eta 18 helburu zehatzetan](#) egituratzen da; egungo egoera diagnostikatzeko eta 2014an egindako aurreko politikak ebaluatzeko bi dokumentutan oinarrituz idatzi da: [Lan Baldintzen Nafarroako III.](#)

Inkesta eta [Lan Osasunaren II. Plana](#)ren ebaluazioa, epemuga 2012an zuena.

Plana Nafarroako lan, ekonomia eta gizarteko solaskideen eta administrazio publikoen artean (Nafarroako Gobernua eta Estatuko Administrazio Orokorra) partekatutako esparru modura sortu da segurtasun-politika eta lan-osasuneko gaien gainean eta datozen sei urterako. Metodologikoki egin da, 2014ko Europako lan-osasuneko arloan dagoen plangintzari jarraiki (Estatuko plana ez da oraindik onartu); horri esker, lanen adierazleen joera fidagarritasun handiagoarekin aztertu ahalko dira (foru-alorrean lortutakoak).

Lan-ezbehar gutxiago eta ez hain larriak

Nafarroako lan-osasuneko zifrek, ezbehar-mailan nahiz lanbide-gaixotasunetan, bilakaera oso positiboa izan dute azken urteotan. Plana idazteko 2000-2013 aldia aztertu da, eta zifra onek honako hauekin dute zerikusia: prebentziozko kultura handiagoa ezartzearekin, kontrol eta ikuskapeneko sisteman hobetzearekin, bai eta krisiaren ondorioz jarduera ekonomikoan ere izandako jaitsierarekin .

2000. urtean Foru Komunitateko indizea 80,4 istripukoa zen mila langileko; indize horrek, ordea, 28,4 ra egin zuen behera 2013an, hau da, % 64,4 jaitsi zen. Gainera, lan-ezbeharrengatik izandako heriotza-tasa ere jaitsi egin zen % 77,7, eta antzeko portzentajetan ere ezbehar larrietan, % 70,2.

Lanbide-gaixotasunetan ere beheranzko joera argia dago, bai eta gaitz horiei lotutako baja-agirien kasuan ere.

Sektoreen arabera, 2013an, ezbehar-maila handieneko sektorea eraikuntza izan zen (57,2), eta sektoreko indizeen batez bestekoa halako bi baino gehiago gaintzen zuen. Bigarren postuan dago industria, 44ko indizearekin. Nekazaritzaren sektorea hurbil zuen, 37,1eko indizearekin; bi datuak 28,4ko batez bestekoaren oso gaintetik zeuden,

Sexuaren arabera, 2013ko datuek aurreko urteetan lortutako emaitzak berresten dituzte; izan ere, laneko ezbeharren eragina emakumeena halako bi izan zen gizonezkoetan. Istripuen larritasuna aintzat hatuz, harreman horrek okerrera egiten du lan-ezbeharren larritasuna areagotu ahala; hala, lan-istripuengatik sortutako heriotza-tasa 11 aldiz handiagoa da gizonezkoetan.

Ezbeharren eta lanbide-gaixotasunen eguneratutako datuak (2014ko irailera arte eguneratuta) [ISPLNren webgunean kontsulta](#) daiteke.

Erronka berriak: krisia, migrazioa eta zahartzea

Nolanahi ere, egindako diagnostikoak ez dio bereari bakarrik begiratzen, baizik eta lan-osasuneko erronka berriei aurrea hartzen saiatzen da egungo testuinguru sozialean; Nafarroako langileak aldatu dituzten hiru egoera berri agerian uzten ditu, eta azterketa nahiz erantzun zehatzak behar dituzte lan-osasuneko ikuspegi batetik: krisiaren eragina, migrazioaren fenomeno eta biztanleen zahartzea.

Hala, planak krisi ekonomikoaren egungo egoera aztertzen du. Eta adierazten du lan-kezkak eragina duela osasunean, ez bakarrik lana galdu duten pertsonengan, baita lanean jarraitzen dutenengan ere, estresa sortuz, hezur eta muskuluko nahasmenduak, antsietate eta depresioko nahasmenduak, bai eta tabako-kontsumoa handitzea nahiz familia-ingurune arazoak areagotuz ere.

Aipagarria den bigarren fenomeno da, immigranteak finkatzen ari direla Nafarroako langileen artean, eta haiek ere beren ezaugarriak dituztela: lan-esperientzia anitzetatik etorritakoak dira, askotariko lan-kultura eta -diziplinekin, eta maila ezberdinetako beharrak nahiz bizi-baldintzak konpontzea bilatzen dute.

Plana idazteko orduan aztertutako hirugarren ezaugarria langileen zahartzea izan da; izan ere, zahartze-maila handiagoa badago,aldi baterako ezintasun-denbora handiagoa izango da gertakizun erkide eta lanekoagatik, lanaldiko istripuen larritasuna handiagoa izango da bajarekin, eta heriotza dakarren ezbehar gehiago gertatuko da.